

2013-03-26ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko martxoaren hogeita seian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomás Etxeberria Sarasola, Noelia Lataburu Ortiz eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2013-03-04). 2013ko martxoaren 4ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 26 zenbakitik 44. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEAN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZEN HASIERAKO ONESPENA, BADAGOKIO.- Akordio proposamen hau aurkezten da:

“Irurako Udalaren kontratu publikoek nahitaez bete beharko dute, gutxienez, euskararen ofizialtasuna jasotzen duen araubidea:

- ⤴ EAeko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- ⤴ Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
- ⤴ EAeko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
- ⤴ Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina (2011).
- ⤴ Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa.

Honela bada, kontratazio arloan erabiliko diren neurriek helburua hau izango dute: udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermatzea. Oro har, hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko da, baina, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira (berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: (1) zerbitzuaren jardueraren gaia; (2) xede taldea; eta (3) administrazioaren hizkuntza araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena).

Hizkuntz baldintzak kontratazio modu guztietan jasoko dira (kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan), baita kontratu mota guztietan ere (obra kontratuetan, herri lanen emakidetan, zerbitzu kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan). Halaber, baldintza agiri guztietan sartuko dira hizkuntz baldintzak, hala baldintza agiri administratiboetan, nola teknikoetan.

Kontratazioak egin aurretik eta ondoren, ziurtatu beharko da delako enpresa edo norbanakoa gai dela eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko. Horretarako, kontratazio guztietan honako prozedura jarraitu beharko da hizkuntz baldintzak txertatzeko orduan:

1. Udal sail bakoitzaren ardura da bere kontratazio prozedura guztietan hizkuntz baldintzak txertatzea eta jarraipena egitea.
2. Derrigorrezko hizkuntz txostena **ezinbestekoa** izango da kontratazioen prozeduran aurrera egiteko, gutxienez, hiru uneotan:
 - 1.1. Kontratazio deialdiko **baldintza agiria onartzeko**.
 - 1.2. **Esleipena erabakitze**ko.

1.3. Esleipendunari **kontratua luzatzeko**.

3. Hizkuntza txostena Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradun teknikoak egin eta sinatuko du, eta **euskara zinegotziak oniritzia** emango dio.
4. Kontratazio mahaian hizkuntz irizpideak baloratu behar direnean, **ezinbesteko kide** izango da Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradun teknikoa (**ikus 1. eranskina**).

Udaleko Euskara Zerbitzuak egindako proposamena aztertuta, hau da **akordio proposamena**:

Lehenengoa.- Hasierako onespina ematea Irurako Udalean kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntz baldintzei (**ikus 2. eta 3. eranskinak**).

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, **Irurako Udalean kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntz baldintzak** behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. “

Gainera, Euskara Batzorde Informatiboak 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, aldeko irizpena eman du.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez proposamena onartzea erabaki du.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

LOATZO MUSIKA ESKOLAKO 2013. URTEKO EKARPENAK ONARTZEA, BADAGOKIO.- Udalbatzak aho batez onartu du Loatzo musika eskolari 2013 ekitaldiari dagokion 35.710,91€-ko ekarpena egitea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

KORRIKA 18RI DIRULAGUNTZA EMATEA ONARTZEA, BADAGOKIO.- Udalbatzak aho batez Korrika 18-ri 500€-ko diru laguntza ematea onartzen du.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek tratatzen dira:

A)Publiko artean zegoen pertsona batek hau dio, etxebizitza hutsei ezarriko zaien errekarua dela eta: jakin duela udal honek onartu duela %100eko errekarua ezartzea ondasun higiezinako zergan. Berak etxebizitza bakarra daukala eta orain alokatuta daukala. Hala ere, azken aldian, maizterrak gasa eta argia ordaindu gabe utzi zizkiola, eta gainera etxebizitza egoera txarrean. Orain udalak zigorra jarri nahi dio. Berak etxebizitza bakarra dauka eta, gainera, bere izerdiarekin bereganatuta.

Udaleko zinegotziek hau erantzuten diote: errekaru hori jarri dela jende askok etxebizitza bat baino gehiago daukalako eta alokairua sustatzeko. Gainera, alokairua ziurtasunez kontratatzeko aukera badagoela, Alokabide izeneko erakunde publikoarekin hitzarmena sinatuz, eta erakunde hau arduratzen da alokairuaz. Horrela ez dela ordainduko errekarurik.

Pertsona honek hau erantzun die: etxebizitza hori semea bizitzeko daukadala, baina orain ez daukala lanik eta horregatik ez dela bizi etxebizitza horretan.

B)Udalbatzak aho batez erabaki du kartela jartzea udaletxearen balkoian lema honekin: "Giza eskubideak irtenbidea. Pakea. Euskal presoak Euskal Herrira."

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:15ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA